SAGARDOETXEARA AUTOBUSEZ DATOZEN TALDEENTZAKO INFORMAZIO PRAKTIKOA

Sagardoetxera egiten duzuen bisita ahalik eta erosoena izan dadin, kontuan hartu autobusen iritsierari eta aparkalekuari buruzko jarraibide hauek:

Mikrobusak

Mikrobusak **Sagardoetxeako sarreraraino** iritsi daitezke, eta bertan bidaiariak arazorik gabe jaitsi eta igo daitezke. Bisita egiten den bitartean, autobusa bertan egon daiteke.



Autobus handiak

Sagardoetxearen inguruan ez dago autobus handiek buelta emateko edo aparkatzeko behar adinako lekurik. Horregatik:

- Bidaiariak **Donostia Ibilbideko Hezegunea edo Pelotari Biribilgunea geralekuetan** jaitsi behar dira.



- Taldeak bisita egiten duen bitartean, autobusak **Bidebitarte poligonoan** aparkatu behar du.



Hezeguneko edo Pelotari Biribilgunea geralekuetatik Sagardoetxera oinez iristeko bidea laburra eta erraza da. **Ikusi ibilbidea Google Mapsen.** **Bisita bukatzean,** autobusak lehen aipatutako geralekuetan jaso dezake taldea.

Behar bereziak

Taldean mugikortasun urriko pertsonaren bat badago edo bestelako behar berezirik baduzue, mesedez, jarri harremanetan aldez aurretik Sagardoetxeko lantaldearekin 943 55 05 75 telefono zenbakian.